

Don Alberto Onaindia (1902-1988)

El Diario Vasco, 1988-07-22: 60.

Don Alberto Onaindia gauza asko izan da gure herrian, baina lehenik apaiza zenez gero, aipa dezagun Euskal apezteria edo "Clero Vasco"ren sortzaileetako buru izan zela.

Hil berria den Iñaki Aspiazu apaiza lekuko.

"Alberto Onaindiari" dio eskeintza batetan: "Clero Vasco"ren historiaren hasieratik bere giltza izan den gizonari. Aita Olasori, Paris Irratitik egindako hizketaldien bitartez Euskal Herriaren eta ixilpeko erresistentziako gizonen izpirituari iraun arazten jakin zuelako esker onez. Euskal Apezteria osatzen dugula uste dugun guztiok".

Betoz, beraz, aspaldi idatzitako hitz hauek, gaurko gure gorasarrearen sarrerara. Don Alberto Markinan jaio zen orain 85 urteko azaroan. Apaiz egin eta gero Valladolideko Kalonje izatera heldu zen oposizio bidez. Gerrarik ezarri ez baziguten, gorabidean abiatua zen gizon argi hau. Hala ere. Elizari ezin hobeki zerbitzatu dio bere sorterriaren bidetik eta hain berea zuen hitz jori eta aberatsa dela medio. Herrian bertan joan ohi zen jendetza elizetara eta jendaurreko elkarrizketa publikoetara ere, bere hitza entzutearren. Errepublikara garaian, "Aitzol"ekin batera Donostian esan zituenak gogoan ditu herriak. Gero, mundu-gerran Londreseko BBC Irratikoak James Masterton izenordearekin, eta aipa dugun bezala Pariseko jardunak Aita Olaso bezala.

Euskal Herriaren egoeraz jakin ahal izan zuen bere bidez Europa osoan zuen entzulegoak. Hiru anai egin ziren apaiz: Txomin, Donibane Lohitzungo eliz nagusian gerra amaituaz gero lanean ari zela istripu baten ondoren orain hiruzpalau urte hila. Zelestino, anai nagusia, frankotarrek afusilatua: izan zezakeen arrazoirik gorrotobiderako, baina ez zuen bidezidor hori hartu, hilketa honek asko sufri arazi bazion ere. Don Albertoren hitza aipatu dugu lehen, eta ahozkoaz ari ginen.

Idazten ere iaioa zen: hara argitaratuak.

"Jóvenes de mañana", Buenos Aires, Ekin, 1969. "Capítulos de mi vida I: hombre de paz en la guerra", Buenos Aires, Ekin, 1973. "Capítulos de mi vida II: experiencias del exilio", Buenos Aires, Ekin, 1974. "Documentos del clero vasco. Ayer como hoy. Selección y presentación de don Alberto de Onaindia", San Juan de Luz, Axular, 1975.

Bada beste bat argitaratua izan den ala ez ez dakidana.

Don Albertok niri 1974an irakurtzeko utzi zidan bere lan interesgarri bat: "Antecedentes de la capitulación de Santoña". Esan zidanez, Jose Mari Lasarte (don Albertorekin harreman horietan ibilia) eta Juan Ajuriagerrak ez zuten argitaratzeko baimenik eman nahi nonbait. Gero neronen hitz egin nuen Joxemari eta Juanekin, eta halaxe zen, ez zuten uste oraindik argitaratzeko garia heldu zenik.

Geroztik gertatukorik ez dut. Don Alberto gizon langilea zen, eta Elizaren, Euskal Herriaren eta Pakearen alde etengabeko lanetan aritu zen; gerrako bi alderdietakoen artean egin nahi izan ziren Kanjeen bitarteko izatea tokatu zitzaion. Gernikako sute ikaragarriaren lekuko izan zen, eta egiaren aldekoak zabaltzerakoan ez zuen Erromatik

erantzun onik jaso. Ondore bezala haurren erbesteratzeko lan harrigarriak egin zirenean ere, euskal haurrak "fedegabekoen" artean zabaltzearekin egin zuten "krimena" leporatu zieten, eta Erromarako egin zen txosten zehatza ez zen onartua izan. Egia da ahalegin batzu ezinezkoak izan zirela: Catalunyan elizak zabaldu eta askatasunean katolikuen zerbitzuan jartzeko ametsa, ez zen bestetan geratu, baina ez du inork esango funtsean don Alberto eta don Manuel Irujo hori lortzen ahalegindu ez zirenik.

Mirakuluak ziren garesti orduan, hau da egia latza.

Agirre lehendakariaren kontseilari preziatua izan zen, eta Irujorekin batera hirukotea astean behin biltzen zen Agirre jaunaren etxean Parisen 1960an Lehendakaria hil zitzaigun arte. Exilatuen artean ere ibili zen predikuan, desterratuei itxaropena zabaldu nahian. Mexikon, Venezuelan, Uruguayan, Argentinan. Besoak zabalik hartzen genuen gure herriko kontzientzia bizia zen apez-gizon hau. Egindako guztiak berekin ditu orain. Bai hutsak ere, seguraski, ez baita ekintzari lotuta aritu eta hutsik egin ez duenik. Hutsik ez egiteko formula, besoak gurutzatuta zai-alperrean egotea baita, eta bekatu honetan ez zen don Alberto Onaindia erori.

Bere herriaren gogoan itsasia dago hau, esker onez eta justiziaz.